



**Getxo**  
*bizi ezazu*

Orri kopurua / N° de páginas:

Data / Fecha:

## **PRENTSA-OHARRA / NOTA DE PRENSA**

### **Abian da Getxo Txukun 2021 parte-hartze prozesua**

Azaroaren 18tik abenduaren 8ra bitartean (biak barne), Getxo Txukun programa parte-hartzailearen edizio berri bat egingo da. Oraingo honetan Negurin egin beharreko obra txikietarako aurrekontuarekin garatu daitezkeen iradokizunak aurkeztu ahal izango dira. Honako kale hauek mugatzen duten esparruari buruzko iradokizunak jasoko dira: Makaleta Etorbidea, Avanzada Etorbidea, Neguri Etorbidea eta Aiboa Etorbidea.

Ainhoa Galduroz Alvarez Partaidetza zinegotziak prozesuan parte hartzeko deia egin die Neguriko bizilagunei. Izan ere, esan duenez, *"horrek lagunduko digu bertatik bertara ezagutzen inguru hori leku hobea izateko dituzten kezkak edo beharrak"*. Galdurozek gogora ekarri duenez, iradokizunak online egin ahal izango dira, parte hartzeko prozesuetarako berriki gaitutako "Zeugaz" plataformaren bidez, edo aurrez aurre, buzoietan utzitako ebakigarria horretarako jarritako postontzietan jarritz.

Aurrekoetan bezala, prozesu honetan ez dira sartuko honako jarduera estrategikoak: (kaleak, parkeak edo/eta auzoak berriz guztiz urbanizatzea); ekipamendu handiei lotutako eskaerak (kiroldegiak, igerilekuak, kultur zentroak, etab.); teknikoki edo/eta ekonomikoki bideragarriak ez diren proposamenak edo Udalaren eskumenekoak ez diren esku hartzeak.

Epea amaitu ondoren, iradokizun guztiak teknikoki kuantifikatu, aztertu eta baloratuko dira, lehentasunak ezartzeko, eta gauzatu daitezkeen proposamenen esku-hartzeen egutegia ezarriko da.

Iradokizunak online egiteko, "Zeugaz" plataforma erabiliko da. Paperean jasotako proposamenak online plataforman sartuko dira. Inoiz ez dira datu pertsonalak sartuko eta bistaratuko. Prozesu horren emaitzak emaitzen txosten batera eramango dira, online plataformaren bidez eskuragarri egongo dena eta inguruko etxeetara ere postontzietan jarriko dena.

### **Nola hartu parte**

Prozesu honetan parte hartu ahal izango dute iradokizunak jasoko diren eremu mugatuan (ikus mapa) errolatuta dauden 16 urtetik gorako pertsonak.

OHARRA: Faxe hartzean arazoren bat eduki baduzue edo goian esandako orriak hartu ez badituzue, deitu mesedez telefono honetara: 94 466.03.20

NOTA: Si han tenido algún problema en la recepción del fax o no han recibido el número indicado de páginas, por favor contacten con el teléfono: 94 466.03.20



# Getxo

*bizi ezazu*

Iradokizunak aurrez aurre edo online aurkeztu ahal izango dira.

- **online:** "Zeugaz" plataformaren bidez (aldez aurretik erregistratu behar da): <https://zeugaz.getxo.eus/?locale=eu>
- **aurrez aurre:** iradokizunak aurkezteko, horretarako editatutako ebakigarrian idatzi beharko dira ([www.getxo.eus](http://www.getxo.eus) webgunean ere deskarga daiteke eta inprimatu) eta jarri diren hiru postontzi gorrietako edozeinetan utzi: Makaleta Etorbidearen eta Los Tilos kalearen arteko bidegurutzean, Tejera kaleko parkean (Metroko irteera) eta Zumardia kaleko parkean.

GetxoUdala  

**Prentsa Bulegoa:** 94 466 03 20.

Eskatzen dizuegu ohar hau zabaltzea. Eskertzen dizuegu halako arreta izatea beti. Adeitasunez.